



Euskal Herriko historiari buruzko bost saio

Otsailean izango dira bost solasaldiak.

Lehenengoa otsailaren 9an, Biterin.

Elkarlanean antolatu dute Hernaniko udalak eta *Amaiur 1512-2012-Nafarroa bizirik* taldeak

KRONOLOGIKOKI antolatu dituzte bost solasaldiak, eta otsailaren 9tik aurrera, Biteri kultur etxean ariko dira, Euskal Herriko historiari buruz. Iruñeako Erresuma sortu bitarteko garaia aztertuko dituzte lehendabiziko solasaldian, eta hortik aurrera egingo dute denboran, bost saiotan. Parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute aldeztatik Biterin. /2

❖ UR LUDOTEKA

Gaur igerilekuan ur ludoteka izango da

Hernaniko Udal Kirol Patronatuak jakinarazi digunez, gaur, urtarrilak 24, ur lodoteka izango da Hernaniko igerilekuan goizeko 10etatik 12etara. Jolastera eta primera pasatzera etortzeko gonbita egiten dute bertatik. ||

◆ ERRUGBIA

Hernani-Durango gaur Urrezko Kopan

Urrezko Kopako lehendabiziko fasea zeinek irabaziko duen gaur erabakiko da, Landaren, 12:00etan. Irabazten duenak bigarren fasea jokatuko du Bera Bera, Ordizia eta Gernika talde haundien kontra. /3

❖ AAM

Prentsaurrekoa izan zen atzo Hernanin

Euskal Preso Politikoen protestak hasiak dituzte euren kartzela baldintzak salatzeke, eta horren harira, atzo, Amnistiaren Aldeko Mugimenduek prentsaurrekoa eman zuten Sandiusterrin. /2



Irazustabarrena eta Ugalde Euskal Herriko txapeldun

AMAIA Irazustabarrena eta Irati Ugalde dira Euskal Herriko elkarte arteko txapeldun berriak, paleta goman, atzo Amurrioren kontra 30-29 irabazita. Atzetik joan ziren hernaniarrak partidu osoan (20-26/28-23...), baina bukaera harrigarria egin zuten bi hernaniarrek eta txapelak ekarri zituzten hernanira; ondo mereziak! ||

GAUR KRONIKAN

Euskal Herriko historiari buruzko hitzaldiak /2

Kirolak. Pelota, arrauna, waterpolo, saskibaloia... /3

Oialume. Aurten San Joan Konpartsarako gaia. /7

Agenda /7

Atez Atekoa. Gauzatzeke fasea hasi da /8

Vanesa eta Miguelo
Harategia

Aukera ezinhobea !!
Urtarrilak 18tik - 24ra.
Egin zure enkargua !!
Gaur, larunbata arratsaldeztatik itxita !!

AURREZ EGINDAKO JANARIAN (PLATOS PRECOCIDOS)
AUKERA ZABALA!!!...ETA ENKARGUZ:

1 kg ALBONDIGAK + OILASKO ERREA **13,50€**

Larramendi, 17 - HERNANI Enkarquetarako: 943 55 03 32

OINDI

taberna

NAGUSIA, 25 HERNANI
943 557 509

ELIZATXO Ikastola

Matrikula otsailaren 1etik 12ra
Ordutegia: 9:00- 12:30 eta 14:30 - 16:30
(Ikastetxea bisitatu daiteke)

943 557 224 (HH-LH) ELIZATXO 9
943 552 633 (DBH-ESO) FLORIDA 28

www.elizatxoikastola.com

❖ BITERI - SOLASALDIK OTSAILEAN

Euskal Herriko historia, bost hitzalditan

Otsailean izango dira bost solasaldiak; lehendabizikoa otsailaren 9an da eta gaia: 'Iruñeko Erresumaren sorrerainokoa. Historiaurretik IX. mendera'. Biterin, 20:00etan.

BOST hitzaldi edo solasaldi, antolatu dituzte, datorren otsailean, Euskal Herriko historiari buruz. Solasaldiak kronologiaren arabera antolatu dituzte, Iruñeko erresumaren sorrerarekin hasi (otsailaren 9an), eta iparraldeko hiru probintziak Frantziak hartu zituen arte.

Solasaldiak elkarlanean antolatu dituzte, Hernaniko Udalak eta *Amaiur 1512-2012-Nafarroa bizirik* taldeak.

Parte hartu nahi duenak izena eman beharra dauka, otsailaren 1etik 5era, Biteri kultur etxean. Doanik da. ||



Amaiurko gazteluan hildakoen oroitarria, 1522-VII-19.

Iruñeko Erresumaren sorrerainokoa. Historiaurretik IX. mendera. Otsailak 9.

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabaren galerarainokoa. IX.m-1300era. Otsailak 11.

Nafarroa Garaiairen konkista. Aitzindariak eta ondorioak. 1512. Otsailak 16.

Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa, Frantziapean. Otsailak 18.

Soberaniaren aztarnak. Otsailak 16.

ORDUA ETA LEKUA: 20:00 - BITERI

❖ AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUAK - AGERRALDIA HERNANIN

AAM: «Euskal Preso Politikoen Kolektiboa osatzen duten presoek elkartasunik sentituena bidali nahi diegu, hasi berri duten borrokaldirako»

Amnistiaren Aldeko Mugimenduek agerraldia egin zuten atzo Sandiusterrin, eta bertan adierazi zuten, euren babesa preso politikoei, eta egungo espetxe politika aldatzeko.

EUSKAL Preso Politikoen Kolektiboan dauden presoek borrokaldia hasi dute euren baldintzak salatzeko, eta atzo, Amnistiaren Aldeko Mugimenduek, prentsaurrean, euren babesa adierazi zien kolektiboan dauden preso guztiei, «hasi berri duten borrokaldian aritzeko beharko duten indarra, maitasuna eta kementa». Horrez gain, prentsaurrekoa eman zuten 30 bat pertsonak, oraingo espetxe politika salatu eta aldatzeko eskatu zuten.

«Azken urteetan baldintzak okertu egin dira»

Preso politikoei hasi duten borrokaldian beraiekin dardela adierazi zuten atzoko agerraldian, eta gaineratu zuten, «jakina da, azken urteetan muturreko egoerak areagotu egin direla. Kondenak luzatu dira, gaixo larriak giltzapean mantentzen dituzte, isolamendua areagotzen diete... Bizi baldintza duinetik oso urrun daude, eta hala ere, tinkotasuna eta kementa erakusten dute. Beraien ekarpena egiten dute gainera, Euskal Herrirako prozesu demokratiko bat ekarri ahal izateko».



Prentsaurrekoa eman zuten atzo, erakunde eta mugimendu ezberdinetako 30 bat pertsonak.

«Gatazkaren parte eta ondorio»

Atzoko agerraldian aldarrikatu zuten, presoek kolektiboak izatera politikoa duela, «Gobernuek ez dute hori aldarrikatzen, baina beraiei espreski zuzendutako politika aplikatzen die. Eta gatazkaren parte eta ondorio diren neurrian, konponbidearen parte eta ondorio ere izan beharko dute nahi eta nahi ez».

Kartzela politika aldatu

Egungo kartzela politika aldatzeko eskaera egin zuten, «suntsizaila eta murriztailea izatetik, eskubideetan oinarritua izatera igaro behar du». Horretarako konpromiso kolektiboan etapa berria zabaldu behar da Euskal Herrian, AAMren ustez, helburu argi batekin: «presoak Euskal Herrian izan daitezen, beraien eskubideen alde».

Eskubide horiek bermatu

daitezen, beharrezkoa dela diote sektore politiko, sozial, eta norbanakoen bultzada eta konpromisoa.

«Bukatzeko, gogora ekarri nahi dugu, Gatzak espetxean 30 urte betetzen dituela. Nelson Mandelak 27 egin zituen, eta ankerkeria onartezin bezala jo zuten ospe haundiko erakunde eta adituek. Gatzak oraindik barruan jarraitzen du. Bera askatzea irmoki aldarrikatzen dugu».

❖ KALE MOZKETA

Nafar kalea itxita

Aitor Zineak ziren tokian obrak direla eta Nafar kalea itxita egongo da urtarrilaren 25etik (astelehena) urtarrilaren 29ra arte (ostirala). ||

❖ ELIZATXO ELKARTEA

Urteko batzarra gaur goizean

Elizatxo elkarteak urteko batzarra egingo du gaur goizean. Bazkide guztiei dei diete juntatik, batzarreara azaltzeko. Gai ordena honakoa dute: azkeneko akta irakurketa, 2009ko kontuak eta ekintzak nola joan ziren, eta lehendakari berria aurkeztea: Andoni Perez. 10:00etan gosaria izango da, eta 11:00etan hasiko da batzarra. ||

❖ GOIZ EGUZKI

Internet kurtsoa

datorren astean Biterin

KZ Guneak internet kurtsoa antolatu du urtarileko azkeneko astean Biteri Kultur Etxean.

Horretaz gain, elkartetik jakinarazi digutenez, urtarrilak 25etik (astelehena) aurrera 2010eko kuota kobratzen hasiko dira.

Kuota 7 eurokoa izango da, 2009 urtean bezalaxe. ||

❖ TXANTXANGORRI

Mus txapelketetan apuntatzeko azken eguna, bihar da

Txantxangorri elkarteko mus txapelketak datorren hilaren hasieran hasiko dira, eta izena emateko epea irekita dago, bihar arte, urtarrilak 25. Urte asko dira Txantxangorri mus txapelketak egiten hasi zirela, aurten 42garren aldiz egingo dute binakako txapelketa, eta banakako txapelketa berriz, 24garren aldiz da egiten dutela. ||

❖ UDAL LIBURUTEGIA

Ipuiak kontatzen Lur Korta izango da

Hernaniko Udalak antolatuta eta Eusko Jaurilaritzaren laguntzarekin urtarrilaren 26an, asteartean, ipuin ordua izango da Hernaniko udal liburutegian. Kontalaria Lur Korta izango da eta bi saio eskainiko ditu: 17:30etan 3-4 urtekoentzat eta 18:00etan 5-7 urtekoentzat. ||

◆ ERRUGBIA - URREZKO KOPA

Euskadiko onenekin jokatzeko aukera

Durangoren kontra jokatu du gaur Hernanik, Urrezko Kopako sailkapeneko finala. Gaur irabaziz gero, Euskal Autonomi Erkidegoko hiru talde nagusiekin jokatu luke Hernanik, Urrezko Kopa. Partidua gaur, Landaren, 12:00etan.

HERNANIK aukera ederra dauka gaur, 12:00etan, Landaren, Urrezko Kopa azken fasea pasatzeko. Horretarako Durango taldeari irabazi behar dio gaur, lehendabiziko faseko finala. Hernani joku puntu oso onean dago, eta berez, irabazteko aukera haundiak ditu,

Durangoren kontrako partidu errazik izaten ez den arren.

Bera Bera, Ordizi eta Gernika Durangori irabaziz gero, bigarren fasea pasako litzateke Hernani. Han zain ditu Euskal Autonomi Erkidegoko hiru taldeak, Ohorezko A mailan ari

direnak: Pegamo Bera Bera, Ampo Ordizia eta Bizkaia Gernika. Bigarren fasea ligila moduan jokatu dute; elkarren kontrako partidu bana. Urrezko Kopa irabazten duenak, sari ederra izango du: Irlandako amateur txapelkunaren kontra jokatu dute partidu bat

Irlandan bertan.

Urrezko Kopa antolatzen duena Euskadiko Errugbi Federazioa da, eta araudi berezia jarria dauka: txapelketa hone-tan, talde bakoitzak gehienez hiru jokalaririk izan ditzake Euskadiko Selektzioan jokatzetik ez dutenak. Horrek Hernaniri

mesede egin diezaioke, beste taldeek kanpoko fitxaje asko ditzutelako, eta Hernanik berriz bakarra, beraz, ohizko taldearekin jokatu dezake.

Hernani-Durango, beraz, gaur Urrezko Kopako lehen faseko finalean, Landaren, 12:00etan. (ETB3: 17:00etan). ||

◆ FUTBOLA

Igoera fasea gaur hasiko du Hernanik

Emakumezkoen ligan, Hernanik gaur hasiko du igoera fasea, Eibarren, 14:00etan. Talde gogorra da Eibarkoa, eta deskuidorik gabe ari beharko dute hernaniarrek. ||

Hernanik galdu egin zuen Erregionalen Ohorezko Mailan

Erregionalen Ohorezko Mailan, Hernaniko taldeak ezin izan zion bolada onari eutsi. Berazubi zelaian, Tolosaren kontra atzo jokatu zen partiduan, Hernaniko taldeak 2-1 galdu zuen. ||

◆ ERREMONTA

Barrenetxea IV-Urrutia II galdu egin zuten atzo

Atzo arratsaldean Oñatz eta Zubiruren aurka Galarretan jokatu zen partiduan aurten debutatu berri duen Barrenetxea hernaniarrek, 35-32 galdu zuen Urrutia lagun zuela. ||

◆ BOLEIBOLA

Gasteiz eta Galdakao bisitatuko dituzte gaur hernaniarrek

Hernaniko bi taldeek gaur jokatu dituzte partiduak. Mutilek Gasteizen dute, Lankide Aranbizkarra taldearen kontra, 12:00etan Aranalde kiroldegian. Neskek Galdakaoko Urreta kiroldegian dute, 10:00etan. ||

◆ WATERPOLDOA

Bi partidu gaur kiroldegiko igerilekuan

Hernaniko waterpolo taldeek gaur bi partidu jokatu dituzte Hernanin. Neskek Askartzaren kontra jokatu dute, 13:30etan, eta lehenago, 12:30etan, jubenil mutilek, Gasteizko Lautada taldearen kontra jokatu dute. ||

◆ SASKIBALDIA

Hernanin jokatu dute gaur jubenilek, Easo Basoaren kontra

Hernaniko jubenilen taldeak, Easo Basoaren kontrako partidu du gaur, Hernaniko kiroldegian. Partidua eguerdiko 12:00etan da. ||

◆ TRIALSINA

Trialsina probatu nahi duenak, gaur egin dezake Fagollagan

Gipuzkoako trialsin txapelketa jokatu da gaur Fagollan, errio bazterrean. Lau mailatan jokatu da txapelketa, mundu mailako onenetatik hasi eta hasi berrietaraino. Tartean izango dira, besteak beste, Benito Ros munduko txapel-duna, Jon Areitio hondarbitarra, Iker Lezeta, edo Aitor Murua bezain trialzale onak. Horrez gain, aukera jarriko dute, trialsina probatu nahi duen guztiarentzako zirkuitu errez bat. Bizikleta eta kaskoa ere bertan jarriko dituzte, eta animatzen denari esan diote, 10:00etarako bertan egoteko, Fagollagako zubian. Proba, 10:30etan hasiko da. ||

◆ PELOTA

Barakaldo eta Azpeitiako pelotariak gaur Hernanin

Berria txapelketako partiduak jokatu dira gaur Hernanin, goizeko 10:30etatik aurrera. Barakaldoko Gure Kirola taldea eta Azpeitiako Ilunpe taldeko pelotariak jokatu dute gaure elkarren kontra. Une honetako promesarik onent-suenek jokatu dute Berria txapelketa, eta ikusi nahi dituenak aukera ederra dute gaur, Hernaniko frontoian. ||

◆ PELOTA

Mendizabalek eta Olaizolak galdu egin zuten

Atzo arratsaldean eskuzko binakako txapelketan Oier Mendizabalek eta Aimar Olaizolak galdu egin zuten Beroiz eta Martinez de Irujoren aurka. Iruñako Labriten jokatu zen pelota partiduan hernaniarrek eta goizuetarrak 20 tanto egitea lortu zuten, baino ez ziren irabazteko nahikoak izan. ||



Gipuzkoako batel txapelketa gaur hasiko dute.

Hernaniko arraunlariak gaur hasiko dute denboraldiko lehia, Gipuzkoako txapelketan. Orioko uretan jokatu da txapelketaren lehendabiziko jardunaldia, eta tartean Hernaniko 6 bat izango dira: infantiletan bat, kadeteetan 2 eta senior eta jubenilen artean 3 (bi mutilenak eta bat neskena). Txapelketa, gaur, 10:00etan hasita, Orion (autopistako zubiaren parean). ||

Alicia Carrasco Campuzano:
COACHING - PNL

"Pertsona bakoitzaren onena, pertsona bakoitzaren barruan dago."

Zer da COACHING - PNL?
Bizitzan arrakasta lortzeko norberak duen potentziala askatzeko laguntza.

Inongo blokeo edo barne korapiloren sentitzen baduzu...
Zure bizitzaren bidean laguntzarik edo konpainiarik beharrez gero...
...Zure garapen pertsonala indartuz, soluzio bidean lagunduko zaitugu.

Coaching, Pnl, Flores de Bach...
Ez etsi soluzioen bidean.

Agustindarren plaza, 4. lokala. Tfnoa: 653 267 146.

Allianz (III)
ASEGURUAK

bizitza -
laster jokuak -
ibilgailuak -
arrazoak -
komertzioak -
enpresak -
ardera zibila -
frantziar aseguruak -
inbertsioak -

agustin ezponda irizar
agentzia

Bulego berria:
Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

LOKEFALTABA (C)

MERKEALDIA !!!

Egungo moda neska/mutila
Prezio ezinhobeak...
Zatoz gu ezagutzera.

Gudarien plaza, Hernani. Tfnoa: 943 56 26 62

Duela sei urte inguru hasi zen Andrea bere aitaren laguntzaz zaldi gainean ibiltzen. Orduz geroztik geroz eta maila handiagoa lortu du ekitazioan; egun, poni jau-

zietan lehiatzen da. Joan den azaroan, C kategorian, Euskadiko txapeldun izatera iritsi zen. Honi guztiari buruz hitz egin digu bere aitaren babesean.

ANDREA ROMERO VILLANUEVA -AMAZONA-

«Bi urte daramazkit olinpiadetara joatearekin amesten»

Estitxu Neira

ANDREA Romero astigartarrak, hamaika urterekin, poni jauzietan Euskadiko txapeldun izatea lortu zuen joan den azaroan Bizkaian.

Kontuan hartuz kirol hau Euskadin ez dela oso praktikatu, nola hasi zinen hain gazte? Zerk bultzatu zintuen?

Betidanik gustatu izan zaizkit zaldiak. Txikitan ikusten nituen, eta horrela eskatu nuen bat nahi nuela.

Familiako norbaitek praktikatzen du ekitazioa?

Aitari ere beti gustatu izan zaizkio zaldiak, bera gaztea zenean ere ibiltzen zen; baina aitak ni motoan ibiltzea nahi zuen; eta nik, neure kabuz, zaldia aukeratu nuen. Nire neba txikia ere ibiltzen hasi da, orain zazpi urte ditu. Hiruko asapalan (galopean) dago orain, eta laukoa behar da lehiatzen hasi ahal izateko.

Daramazkizun urte hauetan guztietan inoiz izan al duzu erorketa larriren bat?

Erori askotan erori naiz, baina erorketa larririk ez dut izan. Orain arte ez dut inoiz ezer hautsi, eta erori bezain laster beti igo izan naiz zaldi gainera berriz ere.

Erabiltzen dituzun poniak zureak dira? Zenbat dituzu? Zein motatakoak?

Bai nireak dira, orain bi ditut. Txikitatik dudana bat, guk hezi duguna. Txuri izena du eta B motatakoa da. Zazpi urte bete nituenean, nire urtebetetzetarako operitu zidaten. Bestea, C motatakoa dena, Duna Sim 435 da.

Zuek arduratzen zarete euren zainketa eta

heziketaz?

Orain arte gure gain hartu dugu lan hori, Txuri da horren adibide; baina orain nagoen mailan ezinezkoa da, horregatik, Miracampos hipikan zaintzen dituzte.

Nolako izan da zure ibilbidea?

Non entrenatu izan duzu, norekin?

Hasieran Liztorretan (Orereta) ibiltzen ginen. Zirkulu txiki batean ibiltzen ginen; ni zaldiaren gainean, eta aitak eramaten ninduen soka batekin, lau edo bost urte besterik ez nituelako. Igandero joaten ginen, geroz eta gusturago nengoen, eta ni bakarrik ibiltzen hasi nintzen. Ondoren, goiko pista handira igo ginen; bertan ere, ni bakarrik ibili nintzen.

Gurasoek ikusi zuten aurrera nindoala eta, Bugati-ra eraman ninduten (Lasarteko hipodromoan) han hipika bat zegoen, egun itxita dagoena. Bertara ere, igandetan bakarrik joaten nintzen, baina entrenatzaile bat nuen. Han lau hilabete inguru pasa nituen, eta orduan, aitak beretzat zaldi bat erosi zuen. Hori dela eta, Txuri niri operitu zidaten.

Orduan, menditik paseatzen hasi ginen, urte eta erdi horrela igaroaz. Astigarragan lur-eremu bat dugunez, hortik ibiltzen ginen; Orereta aldera joaten ginen; Urdaburura; Adarrara; etab. Horrela, aita eta biok, bost edo sei orduko ibilaldiak egiten genituen.

Egun batean Loiolako hipikara joan, eta han gehienbat jauziarekin egiten dutenez lan, Felix del Rio entrenatzailearekin klaseak ematen hasi nintzen. Loiolan urte eta erdi inguru pasa nuen ere, baina hango maila txikia gelditu zitzaidan; irakatsi beharreko guztia ikasi nuen bertan, eta Miracampos hipikara (Lasarte) joan ginen, eta bertan nago orain,



Andrea Romero bere sariak atzean dituela

Poniak 148 cm-tik beherako altuera duten zaldiak dira. Kategoriatan, 6 eta 16 urte bitarteko haurrek hartzen dute parte.

KATEGORIAK	EZAUGARRIAK
A motako poniak (Txikiak)	110 cm-aineko altuera
B motako poniak (Piska bat handiagoak)	110-130 cm arteko altuera
C motako poniak (Ertainak)	130-140 cm arteko altuera

Euskadiko txapelketako saria izan da orain arte jaso ditudantatik garrantzitsuena.

Urduritasuna eta zaldia behar bezala ez kontrolatzea dira nire akats handienak.

Jauzien modalitatea da nire gustukoena lehiatu egiten dudalako, eta irabaztea asko gustatzen zaidalako

Ruben Gomez entrenatzaile dudalarik. Bera, jinete profesionala da.

Zenbat ordu ematen dituzu entrenatzen?
Entrenamendu ofiziala, hau da, entrenatzailearekin, astean hirutan izaten dut; asteazken, ostiral eta igandetan. Baina, beste egunetan ere, astelehenetan izan ezik, gure kabuz entrenatzen dugu. Astelehenetan ere askotan joaten gara zaldian paseatzera. Entrenamenduak gutxi gora-behera ordu betekoak dira zaldi bakoitzarekin.

Zaldia 3x4 metrotako box batean daude, 24 ordu hor barruan pasatzea zigor handia da beraiantzat. Horregatik, saiatzen gara egunero ateratzen. Hipikan ibilgailu automatikoak dituzte, eta hango zaintzaileek goizetan ateratzen dituzte bertan ibiltzera. Arratsaldean, gu joaten gara ibiltzera, horrela, egunean bi aldiz atera daitezten kalera.

Zer nolako ariketak egiten dituzu entrenamenduetan?

Gehienbat laborategi jauziak.

Entrenamenduaz kanpo zaldian ibiltzera zoazenean, nondik ibiltzen zara gustukoena?

Santa Barbara igotzea asko gustatzen zait.

Zaila iruditzen zaizu ikasketekin bateratzea?

Oso ondo daramat, ikastolan oso nota onak ateratzen ditut. Batzuetan, gutxitan izan arren, ikastola galtzen dut lehiaketetara joateko, baina dena irakasleekin hitz eginda dagoenez ez dago arazorik.

Zu jauzietan ibiltzen zara, baina hau da gustukoena duzun modalitatea?

Bai, hau da gehien gustatzen zaidana. Modalitate honetan beste jineteekin lehiatzen dut, eta irabaztea asko gustatzen zait.

Noiz hasi zinen lehiaketetan parte hartzen?

Txapelketetan parte hartzen dudana lehendabiziko urtea da. 2008ko uda-



Andrea Romero salto proba egiten

ran bi lehiaketa txikitik hartu nuen parte Txurirekin, baina proba modura.

Zein motatako kategorietan lehiatzen duzu?

Aurten A, B, eta C kategoriatan hartu dut parte.

Urtarrilaren 13an hasi nintzen D motatako poni batekin entrenatzen, eta aurten soilik C eta D motatan lehiatu nahi dugu. Berez, 13 urterarte lehia nezakeen gainontzeko kategorietan, baina 1.60ko altuera dudanez, apur bat txikiak ari zaizkit gelditzen.

Euskadiko txapelketan, zure kategorian urrea irabazi zenuen, oso zaila izan zen?

Bai, oso urduri nengoen. Eta gainera, lehia handia egon zen.

Zein zaldirekin lehiatu zenuen?

Duna Sim 345-rekin, C motatakoa. Oso ondo egiten ditu jauziak, eta hasiko den denboraldian ere berarekin lehiatzeko asmoa dugu.

Zenbat lagunek hartu zenuen parte?

Zein adinetakoak?

Finalean 12 ginen. Ni txikienetako nintzen, 16 urterarte lehiatu daitekeelako. Gainera, txikienetako izatea abantaila bezala ikusten dut, hobetzeko denbora gehiago dudalako.

Hau izan da zure lehen sari handia, edo baduzu besteren bat zuretzat berezia dena?

Bai hau izan da niretzat garrantzitsua, aurten sari asko irabazi ditut. Baina, besteak, lehiaketa solteak ziren, eta hau txapelketa bat.

Noiz hasiko duzu hurrengo denboraldia?

Denboraldiak urtarrilean hasi eta abenduan amaitzen dira. Tartean, uztaila eta abuztuan oporrak izaten ditugu. Hurrengoan, hil honen 30ean hasten dugu, Bizkaian.

Zein izango da zure helburua?

Dena irabazi nahiko nuke. Baina bereziki, urteko hiru txapelketa nagusiak. Esan bezala, urtean hiru txapelketa garrantzitsu daude; lehenengoa, Infanta Elena, martxoan egiten dena

Madriren. Bigarrena, Espainiako txapelketa, ekainean egiten dena Segovian. Eta azkenik, Poni Club-a hau ere Madriren egiten da. Horietan sailkapen ona lortzea izango da nire aurtengo helburua.

Zer da lehiaketetatik gehien gustatzen zaidana, eta zer gutxien atsegin duzuna?

Gehien gustatzen zaidana ikastola galtzen dudala da, nahiz eta gutxitan galtzen dudana. Eta gutxien gustatzen zaidana, bidaiak oso luze egiten zaizkidala, eta aspertu egiten naiz.

Zein da zure akatsik handiena, gehien hobetu behar duzuna?

Bi gauza hobetu behar ditut bereziki. Lehenengoa, urduritasuna kontrolatzea da. Eta, bigarrena, zaldia gehiago kontrolatzea, askotan solteegi uzten dut.

Zein da ekitalioaren munduan duzun ametsa?

Bi urte daramazkit olinpiadetara joatearekin amesten. II

OTSAILAREN 12TIK 14 RA - 2 GAU

LEKEITIO HOTEL METROKUA, AD	75'00€
SANTILLANA HOSPEDERIA SANTILLANA, AD	98'95€
CANTABRIA H. PARQUE DE ALCEDA, AD + TRATAMENTUAK	129'00€

HEGALDIA - JOAN ETORRIA, BILBOTIK

MENORCA APIRILAREN 4 TIK 11 RA	150'00€
AMSTERDAM APIRILAREN 14 TIK 17 RA	125'00€

IKASLE TALDEAK

SALOU

Apirilaren 5etik 11era
BUS
+
HOTEL PC
+
PORT AVENTURA
sarrerak

205 €

OTSAILA: IRTEERA BILBOTIK

TUNEZ H. VINCCI EL KANTAQUI, 7 GAU, MP	335'00€
LANZAROTE H. SANDOS PAPAGAYO ARENA, 7 GAU, TI	497'00€
NUEVA YORK H. WELLINGTON, 5 GAU, SA	855'00€

ASTE SANTUA

LANDAS VILLA 6/8 APIRILAREN 1 TIK 5 ERA	310'00€
SALOU H. 3*** APIRILAREN 5 TIK 11RA, 2 HELDU + 2 UME P.C	325'00€

HERNANI

BIDAIAK

Urbela, 8
943 33 00 49
hernani@tdl.com.es

www.hernanibidaiak.com

Kukai dantza taldeak 'Sorgiñeta' ikuskizuna estreinatu du asteburu honetan, Euskadiko Orkestra eta Andra Mari abesbatzak lagunduta. Jose Olaizola musikari hernaniarraren Sorgiñeta balletean oinarritu du ikuskizuna, Errenteriako Kukai dantza taldeak. Bost ekitaldi egingo dituzte otsailaren 27ra bitartean, Donostian, Bilbaon, Gasteizen eta Iruñean. Bihar izango da ikusgai, Kursaal aretoan, 20:00etan.

'Sorgiñeta' ikuskizuna Kursaallean, bihar, Jose Olaizolaren ballet famatuan oinarritua

IKUSKIZUN berria aurkeztu du Errenteriako Kukai dantza talde famatuak, eta otsailaren 27ra bitartean bost kontzertu emango ditu: Donostian bi, Bilbaon, Gasteizen eta Iruñean. Hernaniko Jose Olaizola musikariaren 'Sorgiñeta' balletean oinarritu du lana Errenteriako dantza taldeak, izen bereko ikuskizuna prestatzeko. Euskadiko Orkestak eta Andra Mari abesbatzak lagunduko diote emanaldian.

ERRENTERIAKO Kukai dantza taldeko bederatzi dira *Sorgiñeta* ikuskizuneko protagonistak. Eta Euskadiko Orkestak eta Andra Mari abesbatzak lagunduta, otsailaren 27ra bitartean inguruko hiriburu nagusienetan dabilta, emanaldiak ematen.

1950ean sortu zuen Jose Olaizola hernaniarrak *Sorgiñeta* izeneko balleta; ballet sinfoniko-korala. Orain, Kukaik bertsio berria aurkeztu du, Olaizolaren lanean oinarritua.

Bederatzi dantzari, puntako Kukai dantza taldeko bederatzi dantzari interpretatuko dute *Sorgiñeta* lana. Koreografia Jon Maia dantzariarena da eta Mireia Gabilondo da eszena zuzendaria.

Bederatzi dantzariak hauek izango dira: Vivien Ingrams, Jon Maia, Eneko Gil, Alain Maia, Urko Mitxelena, Ibon Huarte, Nerea Vesga, Vanesa Castaño eta Nagore Indakoetxea.

Xabier Lozañorena da argi

diseinua, eta erropa diseinuaren ardura Ana Turrillasena.

Sorgiñeta, amodiozko istorioa *Sorgiñeta* izeneko lurraldean, erregina triste bizi da, eta bertako herritarrek festa haundi bat egingo dute, hari poz pixka bat emateko eta torneo bat antolatuko dute, erreginari bikotea bilatzeko.

Jose Olaizolak idatzi zuen moduan, *Sorgiñeta* ikuskizunean, amodiozko istorio bat ikusiko dugu, burrukaldi bat eta *Sorgiñeta*ko herritarrek antolatutako festa erraldoia.

Sorgiñeta izeneko lurraldean, erregina triste bizi da, eta bertako herritarrek festa haundi bat egingo dute, hari poz pixka bat emateko

Bost emanaldi, lau hiriburutan

Estreinuari, guztira bost emanaldi antolatu ditu Kukai dantza taldeak. Lehendabizikoa Donostian egin zuten, otsailaren 22an. Atzo izan zen bigarrena, Bilbaoko Euskalduna aretoan. Bihar, astelehena, berriz Donostiako Kursaal aretoan ariko dira, arratsaldeko 20:00etan. Asteartean Gasteizko Printzipal aretoan izango da, 20:00etan. Eta azkenik, asteazkenean, Iruñeko Baluartean egingo dute azken emanaldia, 20:00etan. ||



Jose Olaizola Gabarain eta bere jaiotetxean Hernaniko Udalak jarritako plaka.

Jose Olaizola Gabarain, musika sortzaile nekaezina

JOSE Olaizola Gabarain 1883an jaio zen Hernaniko Kardaberaz kalean, urtarrilaren 27an. Lau osaba bertsolarik eman izango zioten, akaso, musikarako afizioa, eta Olaizola gazteak, azkar hasi zituen bere musika lanak.

Goiz hasi zen musika munduan lanean, eta musikari haundi izatera azkar iritsi zen. Musika estilo asko landu zituen, eta obra asko idatzi:

Asto ipuilaria eta *Sor-*

giñeta balletak. *Zorigaitzoko eguna* zarzuela. Estantpak bost: *Umezurtza*, *Anguleros del Nervión*, *Asparrengo jaietan*, *Pasaiko batelzaleak*, eta *Ni naiz Kapitan Pilloto*. Eliz obra bat ere egin zuen, *Assumpta est Maria*. Txisturako obra asko idatzi zituen, *Aupa Mutillak*, *Mendian bai alai*, *Erriko jaietan*, *Etxeko jaun*, *Mendiko aizeak...* eta baita pianorako, kanturako eta organorako ere.

Musika ez diren alor batzuetan ere aritu zen

Olaizola. Teatorako 9 lan idatzi zituen, eta poesia asko, *Udaberri* esaterako.

Euskal Herriko txistulari elkarteko 1go zuzendaria Beste batzuekin batera, bera izan zen Euskal Herriko txistulari elkartearen sortu zuena, eta baita lehenengo zuzendaria ere. Eusko Ikaskuntzako eta Euskaltzaindiko kide izan zen, eta Donostiako zinegotzi lanak ere egin zituen, 1920-23 eta 1931-36 artean. ||

Hitzaldi eta solasaldia
Urtarrilak 25, asteartea
8:15etan
20:00etan

Eta erraustegia zer?

Peio Lozano
Euskal Herriko Unibertsitateko
Lurralde antolatutako irakaslea

HZZ

GUAIXEK eta BELEIXEK zure laguntza behar dute

Lagun taldean, familia artean, lankideekin batera edo bakarka egin zure diru ekarpena:

3035 0018 49 018002672.8 Euskadiko Kutxa
2054 0010 19 915603601.2 Nafarroako Kutxa

sakandar 1 = euro 1 20.000 baietz!

egin ezazu GUAIXE eta BELEIXEren alde!

❖ SAN JOAN KONPARTSA



Oialume dantzalekua, erromeria hasi zen garaietan.

Oialume dantzalekua aurtengo San Joanetako karrozan

San Joan Konpartsak Oialume dantzalekua aukeratu du aurtengo San Joanetako karrozarako gai bezala.

URTERO egin ohi duen bezala, San Joan Konpartsak gai bat aukeratu du San Joanetako karroza bat ateratzeko. Buruari buelta pare bat eman ondoren, aurtengo Oialume Dantza Lekuari buruz egitea erabaki dute. 1943. urtean zabaldu zuten Hernaniko Martindegi auzoan zegoen erromeria-leku hori, apustu baten ondoren, eta etengabe aldatuz joan den gizarte baten lekuko izan da. Berbena talde asko pasatu da bertatik, eta musika diskoa ere jarri zuten bukaeran, hilerio, bi igandetan, gazte jendearen gustuei kasu eginez. Lekukoek diotenez, hasiera batean, trikitalari itxu bat izaten zen hura girotzan eta 1,5 peztaren trukean egiten zuten dantza nahikoa, garaiko gazteek. Ondoren zozketa txiki bat izaten omen zen sarrera ordaintzen zuten guztien artean. Saria oilo pare, arkumea edo asto kume bat ere izan omen

zen. Hainbeste urteetako erromerietan dozenaka bikotek elkar ezagutu zuten bertan.

San Joan Konpartsak badaki, horrelako istorio mordo bat badagoela 60 urte baino gehia-

San Joan Konpartsak gaia aurrera ateratzen lagundu nahi dietenei, informazioa, garai bateko argazkiak edo anekdota pertsonalak bidaltzea eskertuko lieke.

go bete zituen dantza leku baten atzean. Horregatik, San Joanetako karroza errealitatera ahalik eta gehien gerturatzeko asmoz, informazioa, argazkiak edo anekdota pertsonalen bila

dabil. Hori dela eta, gai hau aurrera ateratzen lagundu dezaketen Hernaniko eskualdeko pertsona guztiak, otsailaren 2an arratsaldeko zazpiretan Biteri Kultur Etxean ospatuko den bilerara gonbidatzen ditu.

Bestetik, dantzalekuaren inguruko garai bateko argazkiak dauzkatenek edo lor ditzaketenek, Udaleko Artxibora (goizez) edo Biteri Kultur Etxera (egun osoz) jo dezakete. San Joan Konpartsak argi utzi nahi du, argazkiak itzultzea beraien eginkizuna izango dela.

Urteko batzarra asteazkenean San Joan Konpartsak urteroko bilera egingo du asteazkenean, hau da, urtarrilaren 27an, arratsaldeko zazpiretan Biteri Kultur Etxean. Ohitura den bezala, jendeari bertara azaltzeko deia egiten dio urteroko kontuetaz hitz egiteko. ||

X Asteko agenda

URTARRILAK 25, astelehena:

• **Erakusketa:** Carne de la Cavaren Oleoak ikusgai. Biterin 18:00etatik 20:00etara.

URTARRILAK 26, asteartea:

• **Ipuin kontaketa:** Lur Kortaren eskutik Udal liburutegian. 3-4 urte bitartekoentzat 17:30etan eta 5-7 urte bitartekoentzat 18:00etan.

**URTARRILAK 28, osteguna:**

• **Erakusketa:** Pintura eta eskultura. Hernani eta Beasain herrietako artistak. Biterin 18:00etatik 20:00etara.

• **Zine kluba:** Paris. Cédrik Klapich zuzendariarena. Biterin 121:30etan.

URTARRILAK 29, ostirala:

• **Erakusketa:** Pintura eta eskultura. Hernani eta Beasain herrietako artistak. Biterin 18:00etatik 20:00etara.

URTARRILAK 30, larunbata:

• **Erakusketa:** Pintura eta eskultura. Hernani eta Beasain herrietako artistak. Biterin 18:00etatik 20:00etara.

URTARRILAK 31, igandea:

• **Erakusketa:** Pintura eta eskultura. Hernani eta Beasain herrietako artistak. Biterin 18:00etatik 20:00etara.

• **Gazte Txokoa:** Xake txapelketa.



2010 merkealdia

Latex eta viscoelastica koltxoiak. Ohe artikulatuak eta motordunak

**Koltxoietan lehengoak gara.
Orain duzu aukera!**

Astelehenetik ostiralera:
9:30 - 13:30 16:00 - 19:30
Larunbata: 10:00 - 14:00

zure koltxoi denda hernanin

15 urte atsedena eta arnairuak neurrira zuri eskaintzen

Aqustindarren, 6 (Eroski berriaren ondoan) • Tel.: 943 556 201

☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 ● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103 ● FARMAZIAK ● Egunez: **Chucla** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● Gaez: **Chucla** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Goizean zerua oso hodeitsu egongo da eta euria egingo du baina arratsaldean atertuko du. Haizea iparraldera aldatuko da.
BIHAR Goizean euri pixka bat egin dezake. Arratsaldean eta gauean zaparrada txikiak botako ditu. Ipar haizea ibiliko da eta tenperatura jaitsi egingo (euskalmet)

❖ ATEZ ATEKO HONDAKINEN GAIKAKO BILKETA



Beitialarrangoitia: «hondakinen kudeaketa ereduak haize berriak behar ditu eta irudiak hori iradokitzen du»

«Atez atekoa diseinatzetik gauzatzera pasa gara»

Biteri kultur etxeko fatxadan lona berria jarri dute aste honetan, fase aldaketa irudikatzen duena alkatearen esanetan.

JOAN den ostegunean, Biteri kultur etxeko fatxadan lona berria jarri zuten eta horren zergatiaren eta esanahiaren berri eman du Marian Beitialarrangoitia alkateak prentsa ohar bidez. «Lona horrek fase aldaketa irudikatzen du, atez atekoa diseinatzetik gauzatzera pasa garelako», azaldu du. Horrez gain, dio Hernanik bere hondakinen %80tik gora bereizita jasotzea sekulako lorpena izango dela eta eredu aldaketa dakarrela. Eta hala azaldu du lonako irudiari erreferentzia eginda: «gaur egungo hondakinen kudeaketa ereduak haize berriak behar ditu eta

leioha irekitzen ari den emakumearen irudiak aldaketa hori iradokitzen dit. Horregatik gustatzen zait».

«Diseinua badugu, parte hartu duten bizilagunei esker»

Prozesu parte hartzailean parte hartu duten bizilagun guztiei esker atez atekoa Hernanira egokitzea lortu dela azaldu du Beitialarrangoitia eta diseinua bada-goela. Eta gaineratu du: «bizilagun horien eskuzabaltasuna eskertu bakarrik ez, egiten ari garenari zentzua ematen diotela esan nahi diet».

Gogor lanean guztia prest egon dadin

Guztia prest egoteko eta udaberriaren martxan jartzeko gogor ari direla lanean azaldu du, «nahiz eta erraza ez izan». Eta adibidetzat jarri ditu: aste honetan eman diren konpostatzeko ikastaroak eta autokonpostagailuak; otsailetik aurrera bizilagunek aukera izango dutela beraien zintzilikatzekoak non kokatuko diren ezagutzeko; dendariekin ere bilduko direla hainbat kontu lantzeko; kamioien, zintzilikatzeko eta kuboen hornidura tramitazioak hasi dituztela; eta bilketa guneak eraikitzen hasiko direla. ||

Amegar

Etxe Tresnak - Altzariak

Erabil ezazu BERRIAK torteis

Arribatzen erretortzenak - Finantziaketa - 12 hilabetetako interesik gabeko

Txirrita kalea, 13-15 Tel.: 943 55 11 25 - Faxa: 943 55 16 03

ARALAR TABERNA

GIRO EDERRA ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8 ☎ 943 33 15 06

❖ ZINEA

‘Todos estan bien’ helduentzat eta ‘Shorts, la piedra magica’ haurrentzat gaur ikusgai

Helduek gaur ikusgai izango dute *Todos estan bien* pelikula. Robert De Niro eta Drew Barrymore aktoreak hartzen dute parte, besteak beste, komedia dramatiko honetan. Arratsaldeko 19:30etan izango da Biterin. Haurrentzat, beriz, *Shorts, la piedra magica* emango dute. Pelikula honetan, Toe da protagonista eta harri magiko bat aurkituko du. Harri horren bidez, edozeinen desioak egi bihurtu daitezke eta pixkanaka auzoan kaosa nagusituko da. Arratsaldeko 17:00etan izango da. ||

Atez ateko zalantzak argitzen

Beira atez ate jasoko da?

Ez. Beirarena da kalsan geratuko den kontenedore bakarra. Orain arte bezala, bertara eramango dugu beira.

Bidal zure galdara helbide honetara: info@hernaniatzabate.net
Galdere-erantzun guztiak webgunean: www.hernaniatzabate.net

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pianoa salgai. Yamaha U1F modeloa, bigarren eskukoa. Ongi zaindua. 2.500 euro. Deitu: 629 763 041.
Hernanin (Tilos-etan) Duplex-a salgai estrenatzeko (eraikuntza berria). 130m², 3 logela, 2 komun, sukaldaria (osagai guztiak) eta igogailua. 442.000€. Deitu: 656 316 031.
Garaje itxia alokatzen da herri erdialdean. Deitu: 943 55 04 71 / 615 009 926.
ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, gabonetako eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzalea. Atzeta 2, behe. Tel. 943 55 32 78.
Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diaforeoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta berbebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

www.salesianosurnieta.com

Tfnoa. 943 55 17 89

SALESIANOS Urnieta SALESIARRAK

DBH

Unibertsitate edo lanean hasi arte giro lasai eta arduratsuan ikasi nahi baduzu...

zatoz,

Batzilergoa
Teknologikoa / Natur-Osasun Zientziak / Humanistikoak
Lanbide Heziketa
Bekiriketa / Elektronika / Mandoimendua / Grafikagintza

Puertas abiertas:
6 de Febrero - 11:00h
Ateak zabalik:
Otsailak, 6 - 11:00

Aurreinskripzioak: otsailak 1-12